

Ama Poz-asetzalle'ari Bederatziurruna

UGEL DEUN

ETA

bere Gopatzaren edesti laburra

TA

Gopatz onek illoro dagizan otoyak

MANTEROLA' TAR GABIREL

JAUPARIJAK EUZKERALDUTA



1918

JAUNGOIKO-ZALE'REN IRARKOLEAN

Zorñotza.—(Bizkaya)

Victoriae 30 Aprilis 1917.

Nihil obstat.

DR. PETRUS MENCHACA.

Victoriae 2 Maii 1917.

Imprimatur,

Gubr. eccus. S. V.

DR. JOSEPH LEONTIUS O. DE ZARATE.

Sigillum.



Ama Poz-asetzalle'ari Bederatziurruna

Egun guztietarako Otoya

MAITE - DAMUZKO OTOYA

Jesu-Kisto neure Jauna; Jaungoiko ta Gizon egizkoa, Aita errukior eta gure Eroslea; zeugan ziñestu, zeugan itxaron eta zeu biotz-biotzez maite zaitudalako, damu naz barru-barrutik, zeu ontasun utsa izan da, iraindu zaitudalako.

Emoidazu, arren Jauna, zeure eskar edo grazia; erruki zakidaz beti, neure almen eta sentzun guztiakaz maitatu, goraldu ta onetsi zaidazan. Auxe eskatzen dautzut zeure Nekaldi Deunan ixuri zenduan Odol arren, eta geure Ama Maria, atsekabe-tuen poz-asetzalle ta obendiyoen (pekatarien) laguntza danen irabaziakaitik. Olantxe.

Lenengo Eguna

Maria zoriontsua Jaungoiko'aren Ama eta baita Ama Poz - asetzallea: Monike Deuna bere seme Augustiñ'en gaiztakeriakaitik atsekabetuen egoanean atsegindu zenduan lez, zeure ardurapean artu gaizuz; bizitza onetako gatxori (zori-gach) danetatik urten eta bederatziurrun onetan eskatzen dautzuguna lortu daigun.

Eskar (grazia) au jaritxiteko agurtuten zaitugu iru *Agur Maria* eta *Gloria* bat esanaz.

Orain eskatu bakotxak bederatziurrun onen bitartez jaritxi gura dabena.

OTOYA

¡Ama maitea! Zeure seme izateko duin enazen arren, biotz-biotzez maite zaitut; ziñesten dot bederatziurrun onetan eskatzen dautzudana lortuteko eskubidea daukazula, ta uste osoaz itxaroten dot jaritxi-ko dautzazula.

Arren ba, neure aldeze (bitartekua) ta

atsedena; atsekabetuen poza zaren ezke-
ro, biurtu egizuz gugana zeure begi erru-
kitsuok, zeure Seme Jaungoikoa geyago
iraindu ezaz, zeure eskarra (grazia) orain
eta gero betiko donokia (zerua) lortu da-
giguzan. Olantxe.

Ÿ. Ora pro nobis beata Mater Conso-
lationis.

R). Ut digni efficiamur promissionibus
Christi.

Ÿ. Ora pro nobis, beate Pater Augus-
tine.

R). Ut digni etc.

Ÿ. Ora pro nobis beata Mater Monica.

R). Ut digni etc.

OREMUS

Domine Jesu Christe, Pater misericor-
diarum et Deus totius consolationis, con-
cede propitius, ut sicut lumbos præcincti
purissiman Genitricem tuam Mariam sub
Consolationis titulo gaudentes veneramur

in terris, ita perenni ejusdem consortio
perfrui mereamur in cœlis.

Concede nobis, quæsumus, Omnipotens Deus, Sancti Augustini Patris nostri devota commemoratione gaudere cujus patrocinio salvari te auxiliante confidimus.

Deus mœrentium consolator, et in te sperantium salus, qui Beatæ Matris Monicæ pias lacrymas in conversione filii sui Augustini misericorditer suscepisti, da donis utriusque interventu, peccata nostra deplorare, et gratiæ tuæ indulgentiam invenire. Per Christum, etc.

Nos cum prole pia benedicat Virgo Maria. Amen.

Bigarren Eguna

MAITE - DAMUZKO OTOYA

Lenengo egunean lez.

Maria Neskutz (Birjiña) altsua, Jauna' ren Ama eta Ama Poz-asetzallea: Augustin gure Aita Deuna'k (santuak) zeugan

bere uste osoa ipiñita zeure arerio guztiak goitu ta zapaldu ebazan ezkerre; eskatuten deutzugu jaritxi daizkuzula zeure Seme Jaungoiko'agandik geure arerio guztiak goituteko indarra, ta baita bederatziurrun onetan eskatzen dautzuguna. Eskarrau (grazia) lortuteko agurtuten zaitugu iru *Agur Maria ta Gloria* bategaz.

Orain bakotxak eskatu...

BERNARTA DEUNA'REN OTOYA

Neskutz (Birjiña) zoruntsua ta Ama maitekorra; zeugandik eskar (grazia) guztien iturrira joan bear dogun ezkerre, egiskuzu zeure Semeak abegi ona egin daiskula ta zeure bidez etorririko Jaunak, zeugaitik ondo artu gaizan, zeure maitasun andiak geure oben (pekatu) ugariak estaldu daizala, ta zeure eskar (grazia) ugariak indartu gaizala egikun on eta irabazietarako, ta baita emon eiskuzu indar eta adorea geure etsayen aurka guda (gerra) eginda azpiratu daiguzan. Olantxe.
(*Azkenengo otoy lenengo egunean lez*).

Irugarren Eguna

MAITE - DAMUZKO OTOYA

Lenengo egunean lez.

Jaungoiko'aren Ama Neskutz (Birjiña) zoruntsua ta Ama Poz-asetzallea, zeure otsein zintzo Tolentino'tar Nikola bere iltamuan (agoliñan) ikertau (bizitau) ta be-
ra zaindu ta atsekabe guztietan poztu ta atseginduko zindula abindu zeuntson ez-
kero, biotz-biotzez eskatzen dautzut zeure otseintzat artu nagizula, eriotzako une es-
tu ta larrian zeure maitetasuna geugan agertu daiten, eta baita bederatziurrun onetan eskatzen dautzuguna lortu daigun.
Eskar (grazia) au jaristeko agurtzen zai-
tugu iru *Agur Maria* ta *Gloria* bat esanaz.
Orain eskatu bakotxak...

AUGUSTIN DEUNA'REN OTOYA

¡Ama zoriontsua! Geure eskariak en-
tzun egizuz arren, eta egizu geure Aita-

gaz alkartzea obenetatik (pekatuetatik) aldenduko gaituan osagarria be izan daite-
tela. Eskiñi egiyozuz geure eskari ta gura-
riak Jauna'ri, abegi ona egin eta uste osoaz
eskatzen dautzuguna zeure bitartez lor-
tu daigun. Artu eiskuzu samurkiro biotz
-biotzez eskintzen dautzuguna; ta geure
ezerestason eta uste argalak aintzat artu
barik, emon egiskuzu eskatzen dautzu-
guna. Zeu zara ba Jesu-Kisto'ren urrengo
obendiyoen (pekatarioen) itxaropen baka-
rra. Zeure bitartez Neskutz (Birjiña) zo-
runtsua itxaroten dogu jaritxiko dogula
Jaungoiko' agandik obenen (pekatuen)
parkaziñoa ta betiko zoriona. Olantxe.
(*Azkenengo otoya lenengo egunean lez*).

Laugarren Eguna

MAITE - DAMUZKO OTOYA

Lenengo egunean lez.

Maria Neskutz (Birjiña) Deuna, Jaun-
goiko'aren Ama ta Ama Poz-asetzallea;

Kasia'tar Errite (Rita) bere biziera guztietan zaindu, ta bere ezbai ta atsekabe guztietan bere laguntzarik onena izan ziñalako, eskatzen dautzugu geure ezerezkeriaz errukituta geure gaxori (zorigatx) guztietan igesleku ta zaindokia izan zaitezala, ta jaritxi daiguzula bederatziurrun onetan eskatzen dautzuguna. Eskar (grazia) au lortuteko agurtzen zaitugu iru *Agur Maria* ta *Gloria* bat esanaz.

Orain eskatu bakotxak...

PULGENTZI DEUNA'REN OTOYA

Neskutz (Birjiña) garbia, Ama Poz-asetzallea, errukiaren iturria ta maitetasunezko itxasoa; zeure otseñai laguntzean agertzen dozun biguntasuna, ¿bear dan lez nok goratu leike? Zu barik ezkenduke biderik zeruko laguntzak geuganatzeko. Zeugandik artu gendun on guztia, poztasun eta gentza (pake) osoa, geu argalak eta jauskorrak izan da be igon gindekezan gentza poztasun eta on guztien tokia dan Jesus zeure Seme Jaungoiko Aita ta Goteuna-

gaz aldi guztietan bizi ta agintzen dau-
nagana. Olantxe,
(*Azkenengo otoya lenengo egunean lez*).

Boskarren Eguna

MAITE - DAMUZKO OTOYA

Lenengo egunean lez.

Maria guztiz garbia, Jaungoiko'aren
Ama ta Ama Poz-asetzallea; zeure bitar-
tekotasunaren indarrez Sahagun'tar Jon
(Juan) deunak, Salamanka'ko bidali (apos-
tolu) argiak, garbitasuneko lora zuria beti
garbi zaindu eban ezkerro; egizu bitarte-
kotasun onen indarrez iraun daigula beti
garbi, ta jaritxi daigula bederatziurrun
onetan eskatzen dautzuguna. Eskar (gra-
zia) au lortuteko agurtuten zaitugu iru
Agur Maria ta Gloria bategaz.

Orain bakotxak eskatu...

JON [JUAN] KISOSTOMA DEUNA'REN OTOYA

¡Andere (Andra) Jaungoikozkoa! Go-
sotasunaren iturria, poztasun eta atsegi-

ñen ibaya, ta eskar (grazia) guztien itxasoa zaran ezker; ñorantz zuzenduko doguz geure negar malkoak, euren garras-tasuna kenduta Dabid'enak lez, gozoak biurtu daitezán, zeure errukitasunezko itxazora izan ezik? Zeugana gatoz Ama maitea, zeugana deadarrez, zeure gozotasun eta atsegiñez bizitza onetan beteta, irabazi daigun betiko zoriona. Olantxe. (*Azkenengo otoa lenengo egunean lez*).

Seigarren Eguna

MAITE - DAMUZKO OTOYA

Lenengo egunean lez.

Maria guztiz aintzaldua, (gloriaz betea) Jaungoiko'aren Ama ta Ama Poz-asetzalea. Ain ardura andiz zeure otsein Villanueva'ko Toma Deuna'ri lagundu zeuntson ezker, zeure semetzat artu ta bere bizitzako jazokun agirienak zeure jai-egunen baten gertatu arteraño, arren

apalki (humil) eskatzen deutzugu duin izan ez arren be, zeure semetzat artu gai-zuzala, geure bizitzako jazokun guztietan geure aldez euki zaiguzan, eta baita be-deratziurrun onetan eskatzen dautzuguna lortu daigun. Orretarako agurtzen zaitugu iru *Agur Maria* ta *Gloria* bategaz.

Orain eskatu bakotxak...

DAMASKO'TAR JON (JUAN) DEUNAREN OTOYA

Ama guztiz altsua, zaindoki Jaungoi-kozkoa: betiko galtzeko bidean dagoza-nentzat kai eskierra (segurua). Zeure otseñen Anderea izan zaitez, zeure lagun-tzaren indarrez geure arerioak ez gai-zan azpiratu, ezpabe goiturik, zeure al-mena ezagututa gorde daitela bere leza itzalean. Leza onetatik zeure errukiz uste dogu azke (libre) izango garala, gero zeu ikusten beti egon gaitezan. Olantxe.

(Azkenengo otoy a lenengo egunean lez).

Saspigarren Eguna

MAITE - DAMUZKO OTOYA

Lenengo egunean lez.

Maria Bakalduna (Erregiña) Jaungoiko' aren Ama ta Ama poz-asetzallea, zeure agerkundiaz Gillelma (Gillermo) Akitania-tarra poztu ta geure arerioak egin eutsozan zauriak osatu zeuntsozan ezkerro; eskatzen dautzugu zeure Seme Jaungoiko-agandik lortu daiskuzula eskar (grazia) osagarri ederra, geure obenak (pekatuak) gogoan (ariman) egin dauzkuzan zauriak osatu dagiguzan eta lortu daigun bedera-tziurrun onetan eskatzen dautzuguna. Orretarako agurtzen zaitugu iru *Agur Maria ta Gloria* bategaz.

Orain eskatu bakotxak...

HYEROMINA DEUNA'REN OTOYA

Ama goraldua; Jaungoikoa'ganako maitetasunean gartua! ¡Jaungoiko'aganako

maitetasunaren itxasoa! Geuganatu egizu maitetasun orren izpi bat baño ezpada be; egizu, Ama maitea, zeure Semea'ganako maitetasun bizian gartu gaitezala; gogo guztiaz, biotz guztiaz, geure indar eta almen guztiaz maitetu ezkerro, gertau gaitzezan betiko donokian (zeruan) maite izateko. Olantxe.

(Azkenengo otoyā lenengo egunean lez).

Zortzigarren Eguna

MAITE - DAMUZKO OTOYA

Lenengo egunean lez.

Ama maitagarria, Jaungoiko'aren Ama ta Ama Poz - asetzallea; Montefalko'tar Deun Kalere (Santa Klara) bere iltamuan (agoliñan) zeu agertuta atsegindu zan ezkerro, otoi dagitzugu (erregututen dautzugu) eriotz aldian geure gogoai (arime) lagundu dagiozula Deuna'k zeruan daukiezan atsegiñetara, ta jaritxi daigula bederatziurrun onetan eskatzen dautzugu-

na. Orretarako agurtuten zaitugu iru
Agur Maria ta Gloria bategaz.

Orain eskatu bakotxak...

VILLANUEVA'TAR TOMA DEUNA'REN OTOYA

Zeruko Bakaldun (erregiña) dontsu Ama
Maria! Zeu eguzki argia zarana ez zau-
kazana, çilluntasun artean zelan ezta gal-
duko? Egiz, Ama maitea, elitzakigu ager-
tu bear Eguzki-eder ori, ainbeste bidar
geure obenakaz (pekatuakaz) illundu do-
gu-ta. Baña geure obenak (pekatuak) gar-
bayaz (damuaz) kentzekoak ba-dira, artu
egizu geurea, egiz autortzen dautzugu ba,
atzipetu (engañau) gareala zeure onu (kon-
tzeju) ederrak aintzat artu ezeitearren;
autortzen dogu alperkeriz zeure dei mai-
tekorrai jaramonik ez deutzagula egin,
eta baita Jaungoiko'aren agintzak beteta-
ko otzak izan gareala: guztiekaitik damu-
tuta gagoz, ta zeure eskar (grazia) argita-
ra joan gura dogu, gero donokia (zerua)
jaritxiteko. Olantxe.

(Azkenengo otoy a lenengo egunean lez).

Bederatzigarren Eguna

MAITE - DAMUZKO OTOYA

Lenengo egunean lez.

Maria zuzen - zuzena, Jaungoiko'aren Ama ta Ama Poz-asetzallea; obendiyoen (pekatarien) zaindoki ta atsegiña ta egiz Deun guztien Erregiña deitzen deutzuen ezkerro, ainbeste eskar (grazia) eurai egin dautzazuzalako; otoi dagitzugu (eskatzen dautzugu) lagundu daizkuzula geure bearrizan guztietan eta izuri dagiguzuzala ari-metan zeure gosotasun guztiak eta baita jaritxi bederatziurrun onetan eskatzen dautzuguna. Orretarako agurtzen zaitugu iru *Agur Maria ta Gloria* bategaz.

Orain eskatu bakotxak...

ANTSELMA DEUNA'REN OTOYA

¡Ama maitea! Lagundu egidazu zeure eskarraz (graziaz); izan zaitez bizitzako atsekabe guztietan neure zaindari ta atse-

giña; zaindu nagizu neure gogoaren (arimiaren) etsayen menpean jausi ez nadin, suge inpernutarren asmo zitalak zeure laguntzaz goitu-ta, betiko zoruna jaritxi dagidan. Olantxe.

(Azkenengo otoyá lenengo egunean lez).





Ama Maria Poz-asetzallearen

Kofradijako erreguak

(ILLAREN LAUGARREN IGANDETARAKO)

In nomine Patris et Filii et Spiritus Sancti. Amen.

Aita'ren eta Semia'ren eta Goteuna'ren ixenian. Olantxe.

ÿ. *Domine labia mea aperies.*

R). *Et os meum annuntiavit laudem tuam.*

G. Jauna, edegiko deutzazuz neure espanak.

E. Ta nire aboak zure gorapena iragarriko dau.

ÿ. *Deus in adiutorium meum intende.*

R). *Domine ad adjuvandum me festina.*

G. Jaungoikoa, zatoz neuri laguntzera.

E. Jauna neuri laguntzera arin etorri zakidaz.

Gloria Patri et Filio...

Sicut erat in principio...

Donokiko (zeruko) Erregin ta poz-ase guztien Ama; indazu (egizu) neure biotza Jaungoiko' aren maitetasunean gartuta, eraskunik (deboziñorik) andienagaz zeure *Koroi* au otoiztuteko eskarra (grazia), neure oben (pekatuen) ordaintzat, zeure Seme Deuna'ren aintzarako (glorijarako), ta neure gogoaren (arimiaren) onerako; ta piztu daitela neure ziñistea ta geyagotu zeruetako zorion artean nozbait aintzalduteko (goratuteko) daukadan itxaropena; gogoraturik eskintzen dautzudazan amairu *Aita Gure* ta *Agur Maria*'ren bidez Ziñeskintza edo *Kredo*'ko egirik lenenak.

LENENGO ZIÑESKAYA

Ziñesten dot, Aita Jaungoiko Guztialdun (Guztialdaben), zeru-lurraren Egilleagan.

Gogoratu daigun Jaungoiko Guztialdunak (Guztialdabenak), zeru ta lurrak ta eurretan diran gauza guztiak ezerezetik egin ebazala... Ta zuk Ama zoriontsua lagundu eiskuzu ludi (mundu) onetako uzkeriak

ezesten, donokiko (zeruko) ondasun beti-
korrak jaritxi daiguzan.

Aita Gurea... Agur Maria.

BIGARREN ZIÑESKAYA

*Ziñesten dot Jesu - Kisto bere Seme
Bakarragan.*

Gogoratu daigun Jesu-Kisto Aita Beti-
koaren Seme Bakarra egiz dala... Ta zuk
Ama zoriontsuorrek lagundu eiskuzu be-
ragan ziñestu ta itxaroten, eta Bera biotz
guztiz maitatzen munduaren egiazko
Gaizkatzallea (salbagillea) Bera baka-
rrik dalako.

Aita Gurea... Agur Maria.

IRUGARREN ZIÑESKAYA

*Ziñesten dot Goteun (Espiritu Santuaren)
bidez sortu ta Maria Neskutza (Birjiña)
gandik jayo zala.*

Gogoratu daigun Jesus, Maria beti Nes-
kutza (Birjiñaren) Semea egiz dala ta

sortu izan zala Goteuna'ren (Espiritu Santuaren) bidez bere garbitasunaren kalte barik... Ta zuk, Ama zoruntsua, lagundu egidazu, Jauna'ren eskar-laguntza berriz lortu ta iñoiz galdu ez daidan, zeu Jesus'en Ama zarañ lez geu be Jaungoiko'ak bere semetzat artu gaizan.

Aita Gurea... Agur Maria.

LAUGARREN ZIÑESKAYA

*Ziñesten dot Ponzio Pilatus' en agin-
dupean gurutzatua, illa ta obiratua
izan zala.*

Gogoratu daigun eta errukitu gaitetzan samurkiro geure Erosle gurutzatuaren nekaldi, eriotz ta obiraltzeaz... Ta zuk, Ama atsekabetu orrek, jaritxi egidazu Jauna'gandik bere zauriak beti gogoan eukiteko eskarra.

Aita Gurea... Agur Maria.

BOSKARREN ZINESKAYA

Ziñesten dot Barrendira (Linbora) jatsi ta irugarren egunean illen artetik berriz piztu zala.

Gogoratu daigun Jesus'en gogoa (arimea) Guraso Deunen gogoak (arimak) azkatzeko Barrendira jatsi zala, ta eurakaz irugarren egunean berpiztu zala... Zeure Seme-Jaungoikoa berpiztuta atsegindu ziñan Neskutz (Birjiña) orrek, lagundu eiskuzu obenetik (pekatutik) urten eta Jaunaren laguntza ta zeruko zoruna lortuteko.

Aita Gurea... Agur Maria.

SEIGARREN ZIÑESKAYA

Ziñesten dot zerura (donokira) igo zala, ta Jaungoiko Aita Guztialdun'aren eskumaldian jarrita dagola.

Oldoztu daigun, Jesus berpiztu ta berrogeigarren egunean zerura igon zala ta an, Aita Betiko'aren eskumaldian jarrita. gutzaz otoi dagiala (gugaitik erregututen

daguala). Ama onetsia, gure gurutza eroaten lagundu eiskuzu, beronen bidez betiko zeruan goraldak izan gaitezán.

Aita Gurea... Agur Maria

SASPIGARREN ZIÑESKAYA

Ziñesten dot andik illak eta biziak epaitzera (juzgetara) etorriko dala.

Gogoratu daigun ludiaren azkenean Jesu-Kisto illak eta biziak epaitzera (juzgetara) etorriko dala... Maria, obendijoen (pekatarien) bitartekoa, lagundu eiskuzu ludi onetan egikun onari jardun dayogun, egun bildurgarri atan onakaz Jauna'ren eskumaldian izan gaitezán.

Aita Gurea... Agur Maria.

ZORTZIGARREN ZIÑESKAYA

Ziñesten dot Goteun edo Espiritu Santuagan.

Gogaldu daigun Irukoiztasun (Trinidadeko) ziñeskai gurenatzaz (jasua) ta eska-

tu dayogun Ama Poz-asetzalleari jaritxi daigula ziñiste bizia, gure biotza maitetasun ludikoyetatik (mundutarretatik) alden-duta, Jaungokikoaren maitetasunean bakarrik gartu daiten.

Aita Gurea... Agur Maria.

BERATZIGARREN ZIÑESKAYA

Ziñesten dot Eleiz Deun (Santu) Katolikoagan, eta Deunen Alkartasunagan (Santuen Komuniñoagan).

Gogaldu daigun Gure Jaun eta Jaungoikoak Doibatz Orokorran (Eleiza Katolikoan) biziteko egin dauzkun eskar edo graziatzaz, berau Donea (Santua) dan lez, geu be Jesu-Kisto'ren irabazi neurribageen, ta baita Deunen (Santuen) irabazien aldele (participante) izanik, egikun onen bidez donetu (santutu) gaitezana... Eta zuk Ama errukiorra lagundu eiskuzu eskar edo mesede andi onegaitik Jauna'ri eskerrak egiten.

Aita Gurea... Agur Maria.

AMARGARREN ZINESKAYA

*Ziñesten dot obenen (pekatuen) par-
kaziñoan.*

Gogaldu daigun Jauna'ren ontasuna neurri barik andiago dala geure gaiztake-ria baño, ta Jaungoikoak parkatu al dauz-kuzala egin doguzan oben guztiak... Ta zuk, Ama gargi-garbi orrek, lortu eiskuzu orain eta eriotz-aldian geure obenen gar-bai, damu benetakoa, Jaungoiko'agaz aizkidetuta, bere errukiaren ondorengo atsegiñak geuganatu dagiguzan.

Aita Gurea... Agur Maria.

AMAIKAGARREN ZIÑESKAYA

*Ziñesten dot aragiaren berriz-pizkun-
tzan (piztuera barriyan).*

Gogoratu daigun, azkenengo epai egu-nean guztiok berpiztuko gareala geure gorputzakaz... Ama garbia, zeure Ugal Deünaren (Santuaren) indarrez geure ara-

gia orban guztietatik aldendu egizu, egun
atan Deuna'kaz (Santuakaz) batera eguz-
kia baño argiago ta ederrago agertu
daiten.

Aita Gurea... Agur Maria.

AMABIGARREN ZIÑESKAYA

Ziñesten dot betiko bizitzan.

Gogoratu daigun gure azkena ta betiko
bizitzako egizko zoruna... Eta Ama guz-
tiz zurra, lagundu eiskuzu mundu onetako
aldia igaroten, gero betiko bizitzan atse-
gindu gaitezan.

Aita Gurea... Agur Maria.

AMAIRUGARREN ZIÑESKAYA

Gogoratu daigun azkenez Ugel Deu-
na'k (Santuak) geure Eroslearen Gizata-
suna iruditzen dabela, ta Berak geure
maitetasunagaitik ainbat atsekabe ta sa-
mintasunez beteta Bere Odol eder-ederra
ixuri ta bixitza emon ebala. ¡Maria Jau-

na'ren Ama ta Ama Poz-asetzallea! lagundu eiguzu daroyagun Ugel Deunaren (Santuaren) irudipean gogaldu ta gurtuten (adoretan) zeure Jaungoiko Seme ta geure Erosle Jesus, aldi guztietan bizi ta agintzen dauna. Olantxe.

Aita Gurea... Agur Maria.

EZKINTZA

¡Maria Neskutz (Birjiña) garbi ta maitagarria, gogoen (arimen) asetzalle ta zeruko poza! auspazturik zeure oñetan apal-apalik eskatzen dautzut, eskiñi dayozula zeure Seme maiteari Bidalien (Apostoluen) Ziñeskintzako (kredoko) ziñeskayak gomutauta otoiztu (erresau) dodan *Koroi* au. Jaritxi daidazu obenen (pekatuen) parkaziñoa, ta gaizki egiñak zuzendu daidazala, ekandu onari jarraitu ta egun onetako nekazkak (parkamenak) irabaztea. Eskatzen dautzut ziñestearen zabalkundia, ziñauslari (herejien) irakas-kizunak aldendu, Doipuruaren (Aita Santuaren) osasuna zaindu, Bakaldun (errege)

kistarren artean gentza (pakea) ta alkar-
tasuna, pekatariak ondu, atsekabetuak
poz-asetu, ta Garbitokiko gogo (arima)
zoruntsuaren nekeak arindu daizuzala.

Salve...

ÿ. *Ora pro nobis Maria Mater Con-
solationis.*

R). *Ut digni efficiamur promissionibus
Christi.*

G. Arren gutzaz Maria Ama Poz-ase-
tzallea.

E. Jesu - Kisto'ren agintzaen - gai izan
gaitezan.

ÿ. *Ora pro nobis Beate Augustine.*

R). *Ut digni...*

G. Arren gutzaz Augustin dontsu orrek.

E. Jesu - Kisto'ren...

ÿ. *Ora pro nobis Beata Mater
Monica.*

R). *Ut digni...*

G. Arren gutzaz Monike Ama zorun-
dun orrek.

E. Jesu - Kisto'ren...

OTOYA

Jesu-Kristo neure Jauna; Maria beti Neskutza (Birjiña) zorundunaren, geure Aita Augustin eta Monike deunen birtartez, eskatzen deutzut, aldendu dagizula. Sendi edo Batzar au gorputz eta arimako ezbiar guztietatik; eta biotz apalaz zeure aurrian auspazturik gagozanok, gorde gaizuzala arerioen zirikada guztietatik.

Emoiguzu Jauna, errukiz, zeure Eleixiak eskatzen dautzuna, batez be, gaitz ta guzur guztietatik aldendu ta askatasun osoaz zeure naya bete dayela. Olantxe.

Jauna'ren laguntza geugan beti izan bedi. Olantxe.





UGEL DEUN

ETA

bere Gopatzaren edesti laburra

Ugel deuna Maria guztiz deunak erabilli eban eta berak emon eutson Monike deunari. Edertasun au naiko litzake kistarren biotzetan Ugel deunaganako eraskun bizia sortzeko.

Ibertar neskutzen artean oitura zan ugel bat gerritik lotuta erabiltea garbitasunaren ziñal-bentzat, Pierio'k diñon lez. Ta Maria Neskutz deunak erabilli ebala Doibatza'k onesten daben abitz edo tradiziñoak diñosku, ta alatz askogaz egiztuta dago. Maria guztiz garbiari ludi onetatik donokira joateko unea Jaunaren erabagiz eldu yakonean, Belduak ludi gustitik zabalduta egozan Goizpar edo Evangelioa zabaltzen ta goi-indarrez bat-batian Jerusalem'en, Ama Maria ren inguruan, aurkitu ziran ta Jetsemani'ko obibatzen ipiñi eben, eta iru egunean ereskidetasun donokitarrak entzuten ziran. Tomas deuna etzan batu bere lagunakana irugarren egunerarte, ta agertu eutsen bere atsekabea Ama'ren azken onespen edo bendiziñoa artu ezebalako, ta bai-

ta bere gorputz deuna ikusteko gurari bizia. Beronen gurari on au asetzeko idegi eben illobia, ta arrituta, gelduta, geratu ziran Ama Neskutza'ren gorputzik ezegoalako. Bakar-bakarrrik aurkitu ebezan bera birubilkatuteko ipiñi ebezan oyalak ta bizitza gustian erabilli eban gerriko Ugela, bizitzan erabilten ebana ipinten eutsen ildakoan be-ta. Batzuk diñoe Tomas deunak ezagutu ebala Ama Maria'ren Ugela ta eskuetan artu ta itzalez laztandu ebala.

Andera Maria'ren illobian bildu ziran gustiak ikusi eben, Jaungoikoak beren gorputz garbia uzteltzeka aintzaz beterik donokira eroan ebala; azkenengo eguneko berpizte orokorrari itxaron barik eta itxi eben barriro illobia, ta barruan geratu ziran Ama Maria'ren Ugel deuna ta oyalak.

Belduak barriro banandu ziran, ludi gustitik Goizparra edo Ebangelioa zabaltzeko, ta bako-txak ikusi eban Ama Maria'k berariz Doibatz edo Elexa deuna maite ebala. Baña errukizko bakaldun onek berariz agertu gura izan eban bere Ugel deunaren goi-indarra. Eta bere illobian Ugel deunaganako berarizko eraskuna agertu ebalako, edo bere gorpu illa ikusteko agertu eban gurari biziagaitik, Tomas deuna autu eban Ama maite onek Ugel deun onen indarra egiztuten eben alatz edo mirariak zabaltzeko. Diñogun au jazokun onek egiztuten dau: Tomas deuna Meliappur'en Goizparra zabaltzen ebillen. Coromandel'en bakalduri onetan Jaun-

goiko egizkoaren aintzaz txadon edo elexa egiteko guraria eukan, baña bakaldunaren lakemenik ezin eban lortu, Brama-jaupariaren gaiztakeriagaitik. Onetan egun baten itxazoak izugarrizko zur bat liorreratu eban. Bakaldunak beretzat egiten ebillen jauregi baterako eroan gura izan eban. Orretarako alegin gustiak egin ebezan abere ta gizon ugariak bilduta, baña zirkiñik ezin eutsen eragin. Tomas'ek bere guraria betetako eretia eukala ikusi eban eta ezan eutson bakaldunari, berak bakarrik atarako ebala zura bere tokitik, Jaungoiko'aren eta bere Ama Deunaren aintzaz egingo eban elexarako emon gura ba'eutsan. Bakaldun eta ingurukoak ixekaz artu eutsen esan ebana, eta usterik ezin izango ebala bete, agindu eutsen zura berak nai ebanerako. Joan zan itxaz-ertzera oste andiak ondoren jarraituten eutzala. Aitearen egin eta Ama Neskutza'ren laguntza eskatuaz lotu eban zura bere gerriko Ugelagaz ta errazerraz eroan eban berak gura eban tokiraño. Alatz au ikusita bakalduna bere sendi gustiagaz ta bere menpeko asko be oneratu edo konbertidu ziran. Tomas zoriontsuak egin eban bere elexea eta zura artu eban tokian arri andi baten ganian ipiñi eban gurutza bat. Gaur egunez be toki artan agiri da gurutzau.

Tomas deunak Ama Maria'ren omenez eroaten eban Ugelaganako eraskuna alatz onegaz kistarren biotzetan sortu zala ziñestekoa da,

baña deun onen eriotza ondorengo jazokun zorigaiztokoak ziñistearen aziagaz batera eraskun au be ito eben.

Baña IV gizaldiaren azkenetarantza, kistar-batzarentzat izan diran aldirik zoritxarreko-enean, Jauna'ren gurariz agertu zan barriro Ugel deunaganako eraskuna, gizadiaren zoritxar gustietan bere atsegiña izan zedin.

Aldi atan Augustin mutil gastea, biotza girña zitalen aspian eta adimena guzurpean zituala bi-zi zan. Monike, bere ama, atsekabez beterik egoan semearen zorakeri ta bere senar Patirki-ren eriotzeagaitik. Samintasunez Jaunaren aurrean negarrez egoala, ludi onetako gauzetan atsegiñik aurkitu ezinda, gogoratu zan Maria'k bere Seme Jesus ilda euki eban bakartasunagaz; ta zerbaiten bera antzartuteko, eskatu eutson bere bizitzako janskerea agertzeko. Maria'k abegi ona egin eutson bere otoi oneri; agertu yakon soñeko baltz eta ugela aldean ebala ta onexek itzok esan eutsozan: *Monike neure alaba, jantzi onegaz ibilli nintzan ludi onetan: ta auxerabillizu neure omenez*. Agerkun onegaz Monike deunak artu eban poza ezin azaldu leike, gogoko poza norberagan ikusita babarrrik ulertu lei zelangoa dan-eta. Agerkun onegaitik eskar ona agertzeko bere sendian zabaldu eban soñeko au, ta bere guraria betetearren, eukazan iru alabak Perpetua, Felicitas eta Basilise'k jantzi eben soñeko baltza Ugelagaz, amaren biotza atsegiñez

betetan ebela. Augustin zan bakarrik, bere girña txarrak itxututa, Ama Monike'ren biotza atsekabetuten ebana; baña atsekabeetan bere maitaleakandik alde egiten eztabena errukituko zan aldia urreratuez joyan. Monike'k ba, bere onu onetatik iges lez joyan seme Augustiñ'eri jarraitzeko itxasoa igarota, laster atsegiñez lortu eban bere seme kutuna kistar-nai edo *catecumen*oen artean ikustea. Goi-argiak bere adimeneko illuntasunak argitu ebazan, ta gogo gustiagaz egia besartetuta, kistar eginda Jaungoikoagana-tu zan, ta egun gitxi barru artu ebazan Anbortz; deunagandik Monike deunak gertauta eukazan soñekoa ta Ugela. (1).

Andik aurrera Augustiñ'en poza bakaraldia, Jauna'gaz gogoratu ta bera maitatzea zan. Jaungoiko-zaletasuna zabaltzeko gurari biziagaz biurtu zan bere errira, ta Tagaste'ra eldurik lekaretxe edo konbentu txiki bat irasi eban, eta emendik zabaldu ziran mundu gustira, Augustiñ'en arautegi ta Ugela ikurtzat artuta, ainbeste deun eta jakitun emon dabezan lekaretxeak.

Augustiñ'en eriotz-aldian iparraldeko basatiaren etorrereagaz Jauna'k zigor gogorra bialdu eban Europa gustira, ta zoritxarreko jazokun onek Austindarren lan gustiak ezereztuten ebazan. Alan be Apirka'ko lekaretxeak lurreratu ta

(1) «Novum christianum novis vestimentis, cuculla nigra induimus; cingulo ex corio nos ipsi præcinximus». (Anbortzi deunak 29. Itzal. «De Augustini Baptismo»).

birrinduta geratu arren, Jauna'ren laguntzagaz ugaritu ziran lekaretxeok España, Prantzi ta beste laterrietan, onantxe Ugel deunatzazko eraskunak irauten ebala.

Jazokun barri batek geyagotu eban Ugel deunaren omena. Jubenale Jerusalem'go gongotzañak idigi eban V'garren gizaldiaren erdi inguruan Getsemani'ko illobia. Oso-osorik aurkitu eben Belduak itxi eben Ama Neskutza'ren Ugela ta Jerusalem'era eroan eban. Pulkeri bakaldun deunak jakin ebanian eroan eban Konstantinopla'ra onetarakoxe egin eban elexa baten ipinteko. Txadon edo elexa onetara etorten zan Pulkeri deuna egubasten gustietan Ugel deuna ikertzeko. Jarraibide onegaz zabaldu zan Ugel deunaren eraskuna. ta aldi luzian iraun eban. 720'garren urtean Kerman deuna Konstatinopla'ko Gongotzaña zan, ta itzaldi asko egin ebazan Ugel deunatzaz, eta 1090'garren urtean Eutimio'k itzaldi baten diño: *Guk maite dogu bederatzireun urte onetan iraun daben Ugel deun au; Zeruko Bakaldunak erabillia dala ziñestuten dogu. Onen aurrean, jainko-izunen ondi edo altarak birrindu dira. Ta ¿zenbat alatz ez ditu egin mundu gustiaren aurrean.*

Bien bitartean Europa'ra Apirka'tik iges egin eben Austindarrak gopatz askotan bananduta egozan, Arautegi ta soñeko bardiñak euki arren. Alexander IV'garren Doipuruak 1256'garrenean erabagi eban buru baten aspian bildu zeitezela,

eta urietan jarraibide ona eta irakaskintza onak zabaltzeko, alegindu ziran euren gopatzagaz batera Ugel deunaganako eraskuna zabaltzen, ta batez bere Tolentino'tar Nikolas deun egitea IV'garren Engenio'k erabagi ebanean Deun miraritsu onen laguntza lortuteko gustiak deun onek erabilli eban ugela euki nai eben. Gustien gurariak asetzeko Gopatzeko Nagusiaren bai-menagaz egin zan Bazkuna bat «Monike ta Austin deunen Ugeldunen» izenagaz. Doipuruak onetsi eban, baita andik aldi gitxi barru asmu berberagaz «Ama Maria Poz-asedun» izenagaz irasi zana.

Anaidi biok lenengoz Bolonia'n irasi ziran. Onura asko ekarri eutsezan kistarrai, baña biak batu ezker onura geyago Doibatzari egingo eutsiela ta, erabagi eben biakaz bat egitea, ta auxe egin eban Gopatzeko Nagusiak 1575'ean.

Garai artan Doipuru zan Gergori XIII'garrenak onetsi ta bera batza onetan sartu zan, ta Goi-anaidira jaso eban «Poz-asedun Andere deunaren Ugeldunen» izenagaz. Batza onen ondoren onak agertu dabe batza au erabagi eban Nagusia zuzen egoala.

Kistar-batz gustian urte gitxi barru Ugeldun Bazkunak ugaritu ziran, ta ekandu onak zabaldu ta oitura txarrak baztertuta, onura andiak egin ditu uri ta baserrietan.





Ama Poz - asetzalle

ta

Ugel Deunako Batzarrekoak irabazi leikezan nekazka edo parkamenak

Bazkun onetako bazkideak irabazi leikezan parkamenak ugariak dira. Baña emen ezto guz ipiñiko nekazka edo parkamen osoak baño Leon XIII'garrenak 1902'ko Lotazilla'ko 17'an emon eban agintzan dagozanak onexek dira:

Nekazka osoa irabazten dabe kistar gustiak garbaitu (damutu) ta autortu-ta Jaunartu ezker:

1. — Gopatz edo kofradi onetan sartzen diran egunian.

Bazkide gustiak:

2. — Jesus'en Jayotza egunean.

3. — Iru Bakaldun edo Erregen egunean.

4. — Jesus'en Berbizkunde egunean.

5. — Jesus'en Igokunde egunean.

6. — Gorputz egunean.

7. — Mayetz Pasko egunean.

8. — Ama Neskutza'ren Jayokunde egunean.


9. — Jesu-Kisto'ren Gizakunde egunean.

- 10.—Ama Neskutza'ren Garbikunde egunean.
- 11.—Ama Neskutza'ren Jasokunde egunean,
- 12.—Poz - asedun Ama Maria'ren egunean.
- 13.—Deun Mikel Gongotzonaren egunean.
- 14.—Deun Jon Ugutzaria'ren egunean.
- 15.—Deun Joseba'ren jayegunean.
- 16.—Deun Kepa (Pedro) ta Paul'en jayegunean.
- 17.—Deun Austin Gotzaña'ren egunean.
- 18.—Deun Monike alargunaren egunean.
- 19.—Deunoro edo Deun Gustien egunean.
- 20.—Deun Austin'en Gopatzeke, ta batzar one-
tako illen Gomutaldian. (Au eurentzako bakarrik).
- 21.—Elgaro edo abenduko lenengo igandean.
- 22.—Berrogeikaro edo Garizumako lenengo
igandean.
- 23.—Berrogeikaroko IV'garren igandea.
- 24.—Eguen Guren egunean. Garbaitu, autortu
ta Doipuruaren asmoakaitik otoi egin
ezkero.
- 25.—Illa bakotzeko laugarren igandean, garbai-
tu, autortu, Jaunartu ta Gopatzau dagoan
eleketan egiten dan ibildeun edo prozezi-
ñora joan ezkero.

Jaunartu ta autortuta, Ama Maria'ren jayotegunean, ta Toletino'tar Nikolas'en jayegunetik urrengo igandean, Bazkuna dagoan elekea ikertu ezkero, Doipuruaren asmoakaitik otoi eginda, bazkide gustiak irabaziko dabe parkamen osoa, ikertaldi edo bisita bakotxean. Par-

kamen au irabazi leike aurreguneko Bespereta-
tik asi ta urrengo eguneko gaberdirarte (1).

Azkenez irabaziko dabe nekazka oso bat
eriotzako orduan, autortu ta Jaunartuta, edo
besterik ezean biotzez damututa, Jesus'en Izen
Deuna, aoz eta al izan ezik biotzez esan ezkerro.



(1) Nekazka edo parkamen au Porziunkula'ko Pan-
tzezkatarren nekazka lakoa da.